



Autorea	BERNARDO ATXAGA
Zuzendaritza	GARBI LOSADA
Ekoizpen exekutiboa	JOSE ANTONIO VITORIA
Aktoreak	RAMON AGIRRE JOSEBA APAOLAZA
Musika	JUAN CARLOS PEREZ
Abeslaria	KLARA MENDIZABAL
Perkusionista	JABI ALONSO
Bideo proiektzioak	MIGUEL CARABALLO
Argitapen diseinua	XABI LOZANO
Espazio eszenikoa	MARKOS TOMAS
Jantzien diseinua	TYTTI THUSBERG
Diseinu grafikoa	XABIER IDOATE
Zuzendari-laguntzailea	DORLETA URRETABIZKAIA
Atrezzoak	ADOS TEATROA
Eszenografia egileak	JOSEAN PEREZ PEIO VILLALBA
Bideo ekoizpena	LIMBO ESZENA 2.0
Zuzendaritza teknikoa	KARLOS PEREIRA
Makillajea	EVA ALONSO
Argazkiak	EZTI PHOTO
Ekoizpena	LEYRE ORTIZ ITZIAR VILLALBA
Banaketa	ADOS TEATROA

BAKEA



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián



Ados Teatroak
aurkezten du

Lu eta Le

(Lourdes Iriondo eta Xabier Leteren aldia)

Bernardo Atxaga ^k idatzia



Lu eta Le



Egunsentiaren esku izoztuak argitaratu berrikan, hura eskuan nuela ibili nintzen hilabete luzez.

Irakurri behin eta berriro poemak, batez ere "Neguan izan zen" izena zeraman atalekoak, eta haien mezuak gogoeta bide izaten zitzaizkidan. Lagundu egiten zidaten gogoeta horretan poetari berari aurrez aurre entzundakoak, edota bere eskuizkribuetan irakurri ahal izandako testu intimoak; baita Inazio Mujikak *Xabier Lete: (Auto)Biografia* bat bilduman jasotako elkarrizketa-zatiak ere. **"Zatoz neregana goizaldeko ordu erratuetan, oroitzapenen hari trabatuek iraganera naramatenean..."**, zioen *Egunsentiaren esku izoztuak*-eko pasarte batek; **"Jaso nazazu, maite, azken egunean, har nazazu zure besoetan muga izugarriaren ataria gurutzatzen dudanean..."**, zioen beste batek. **"Zatoz neregana goizaldeko ordu desanparatuetan..."**, hurrengoak. Liburuko poema ederrenek maitasuna eta heriotza zuten gai, eta elegia bat osatzen zuten, Lourdes Iriondo gogoan. Pentsatu nuen: "Ez al du Xabier Leteren ahaleginak Orfeo eta Euridizeren kontaera berritzen? Hori izan zen *Lu eta Le*-ren abiapuntua.

Hasiera batean, asmoa beste bat zen. Donostia 2016-ko programatzaileek hala eskatuta, *Gabon Txirrita* obraren bertsio bat egin nahi izan nuen. Baina ezinezkoa izan zitzaidan, eta luze gabe baztertu nuen aukera. Zalantzarik ez, *Gabon Txirrita* obran ere Xabier Leteren espiritua zegoen, gutxi bezala maite izan baitzuen hark bertsolari zaharren mundua; baina *Egunsentiaren esku izoztuak* liburuan ageri zena sakonagoa zen, unibertsalagoa, egiatiagoa; gainera, *Gabon Txirrita*-ren estiloa eta forma oso urrun sumatzen nituen nigandik, zeren abangoardiaren ildoak iruditu izan baitzait beti antzerkirako egokiena. Hirugarren arrazoi bat ere erabakigarria izan zitzaidan: ez nuen publikoaren atxikimendu sentimentala eragin nahi. Alde horretatik, Juan Carlos Perezekin hitz egin eta obrarako musika eskatu nionean, bat etorri ginen segituan: ez zen melodia ezagunik izango, ez genuen publikoa ahopeka kantatzen jarriko. Ondo zeuden kontzertuak, nola ez; ondo zeuden gorazarreak, nik neuk azken agur gisa eskaini niona bezalakoak; baina antzokiek esperientzia desberdin baten euskarri izan behar zuten.

Xabier Leteren liburuak eta koadernoak aztertzen jarraitu nuen. Askotan, sufrimendua islatzen zen haietan. Aldika, umorea. Gehienetan, maitasuna. Poliki-poliki, Leteren materia nirearekin nahastuz, *Lu eta Le* idazteari ekin nion. Irakurketa-testu baten itxura hartu zuen aurrena. Gero, irakurketa-testu ilustratuarena, ilustrazioak batzuetan lirikoak zirela, bestetan onirikoak edo errealistak. Lana bukatzean, zaila egin zitzaidan idatzi berri nuen hura definitzea. Obra dramatiko bat ote? Umorezkoa, umore ilun batez jositakoa? Ilunabarraren une jakin batean ez omen dira hari txuria eta hari beltza bereizten. Litekeena *Lu eta Le*-ren argiak ere bereizketa garbirik ez bideratzea, edo bideratzea Ados Teatrokoek gogo dutena.

Bernardo Atxaga

